

Eusebio Erkiagak, zeinen jaiotzetik lehen mendemuga bete den aurtengo irailean, ondo merezia dauka antolatzen ari gatzazkion eta gaur aurkezten dizuegun omenezko ospakizuna.

Gizon langile eta kristau zintzoa, Euskal Herriaren zale eta, guri dagokigunez, euskaltzale sutsua, noiz eta ‘katakunben aroa’ izenarekin ezagutzen dugun Frankoren diktadurapean, non eta Banko Vizcayan ere, euskara sartu zuen.

Eusebio Erkiaga Lekeition jaio zen eta 1993an Bilbon hil. Bilbon Perito-Ikasketak egin zituen ‘Escuela de Altos Estudios Mercantiles’ en. Euskaltzain urgazle 1952an izendatua izan zen eta euskaltzain osoa 1963an. Bizkaieraz maisuki idatzi arren Federico Krutwigek bultzatuta, ez zuen trabarik izan lan batzuk lapurtar klasikoan idazteko.

Lauaxetaren laguna izan zen eta olerkiak eta eleberriak izan zituen lanik kutunenak.

1936. urtean Lekeition ospatu zen Eusko Olerti Egunean, Eusebio Erkiagak ohorezko aipamena jaso zuen *Lora Gorriak* poemaren bidez. 1950ean “Educación y Descansok” antolaturiko sariketan, bigarren saria eskuratu zuen “Nekazariaren” olerkiarengatik, eta 1951an poesia- eta antzerki-sariak lortu zituen “Azkueren heriotza” eta “Sineste gogorra” lanengatik. 1985an, Ondarroako Kultur Etxeak antolatutako saria irabazi zuen *Taloak eta arraina* lanagatik. 1988an Lekeitioko Udalak eta 1992an Bizkaiko Foru Diputazioak omenaldiak egin zizkieten.

Hainbat eleberri idatzi zituen, aipagarrienak 1958. urteko Bizkaiko Kultur Bileraren saria jaso zuen *Arranegi* eleberria eta *Arabiar zalduna*, urte berean Euskaltzaindiak eraturiko Domingo Agirre saria irabazi zuena. Horrez gain, *Batetik Bestera*, *Jaioko dira*, *Txorio Txoria*, *Irribarrea galtzen danean*...

Erkiagaren hitz lauuko literatur lanei poesiarekiko nostalgia nabaritzen zaie, lirikotasuna hain zuzen, baita hizkuntzarekiko jatortasun eta aberastasuna ere. Mitxelenak esan zuenez, “gainerako euskaldunontzak hain berezia duen Bizkai-euskeraz Lekeitioko hitz-esaera jatorrean blei ageri den euskeraz azaldu digu Erkiagak Lekeitioaren edertasuna. Alde honetatik ene ustez, eztio batere zorrik Domingo Agirreri, ezina badirudi ere, ez jatortasunean, ez aberastasunean” (honaino Mitxelenak).

Azpimarratzekoak ditugu, bestalde, Eusebio Erkiagaren lanak aldizkari eta egunkarietan ere: *Bizkaitarra*, *Euzkadi*, *Yakintza*, *Egin*, *Euzkerea*, *Eguna*, *Egan*, *Olerti*, *Gernika*, *Euzko Gogo*, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Idatz eta Mintz*, *Zer* eta beste hainbeste aldizkari ugaritan artikulu mordoa idatzi zuen. Bat nabarmentzekotan, Banco Vizcayaren *Boletín Informativo*a, Ameriketako euskal artzaintzat Eusebio Erkiagak burutu zuena, 1964tik 1970era bitartean.

Eta, azken puntuaren gisa, itzulpenak. Eusebio Erkiagak horrenbeste maite zituen eleberriren batzuk ere ederki euskaratu zituen, George Simenonenak kasu.

Beraz, Bizkaiko idazle hau omentzeko Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak bildu dituzte indar eta gogoak, eta arazoaren 30ean, Deustuko Unibertsitateko Atrioan honako egitarau hau prestatu dute:

10:00, sarrera hitzak, Andres Urrutia Euskaltzainburua
10:15, “Eusebioren mundua kontatzen”, Roberto Mielgo
10:45, “*Arabiar zalduna*: 6. eta 9. aginduek eragindako nahaspilak”, Ana Toledo
11:15, “Erkiaga, narrazio-egilea, itzultzailea, antzerkigilea eta kazetaria”, Andres Urrutia
11:45, solasaldia
12:15, atsedena
12:45, “Eusebio Erkiaga olerkari”, Igone Etxebarria
01:15. Errezitaldia; “Kresalaren goramina”, Miren Agur Meabe
01:45, agur-hitzak, Jean Haritschelhar, Literatura Ikerketa batzordeko burua.

Gonbidatuak zarete guztiok, eta zuen arretarengatik, mila esker.

Sebas Gartzia,
Literatura Ikerketa batzordeko kidea